EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
*Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Administración y Servicios
*Dirección de Gestión de Personal*

# GARBIKETA ETA SUKALDARITZA BIRBAREMAZIOA 2023-2024

# ESKAERA EGITEKO GIDA

## Aurkibidea

**1. OINARRIZKO INFORMAZIOA....2**

Eskabidea egiteko behar den ekipoa .... 2

Arreta .... 2

**2. HEZIGUNEARA SARRERA .... 3**

Hezigunera sarrera .... 3

**3. ERREGISTRATU GABEKO ERABILTZAILEAK.... 5**

Hezigunera sarbidea.... 5

Erregistroa.... 5

Pasahitza aldatzea.... 7

**4. GARBIKETA ETA SUKALDARITZA BIRMAREMAZIOA 2022-2023 .... 8**

1. Datu Pertsonalak. .... 9
2. Lanaldia aldatzea. .... 10
3. Zonalde batean baja ematea.... 11
4. Zonalde berrietan izena ematea. .... 12
5. Ikasturte osoko deiei uko egitea. .... **¡Error! Marcador no definido.**
6. Frogagiria jasotzea .... 14

# 1. OINARRIZKO INFORMAZIOA

## Eskabidea egiteko behar den ekipoa

Prozesuan parte hartzeko eskabide elektronikoa edozein **ordenagailutatik** bete daiteke, baldin eta Interneteko konexioa badu.

Ezin da mugikorretik, Tabletik edo antzekoetatik egin. Ordenagailuaren bidez egin beharko da.

Nabigatzaile hauek erabiltzea gomendatzen da: Google Chrome, Mozilla Firefox eta Microsoft Edge. Ez erabili Internet Explorer.

Arren, eskaera **epearen azken egunean ez egitea eskatzen dugu**, sartzeko arazoren bat izanez gero, agian ezin izango baita konpondu denboran.

Hain zuzen ere, **Heziguneko arreta-zerbitzua urtarrilaren 10ean, astelehenean, amaituko da, 18:00etan**; beraz, ordu horretatik aurrera ezingo da zerbitzu horrekin harremanetan jarri sor dakizkiokeen arazo teknikoak konpontzeko.

## Arreta

Prozesuaren inguruko zalantzak badituzu:

Zuzenean - 012 / 945 01 80 00

Aplikazio informatikoarekin arazoak badituzu:

Telefonoa: 945 207 256

hezigunea@hezkuntza.net

Ordutegia: Astelehenetik ostegunera 8h-18h, Ostiraletan 8h-15h

# 2. HEZIGUNEARA SARRERA

## Hezigunera sarrera

Sartzeko esteka: [https://hezigunea.euskadi.eus/eu/](https://hezigunea.euskadi.eus/eu/)

Erabiltzaileak erabiltzailea eta pasahitza sartu beharko ditu bere eremu pertsonalean sartzeko. Erregistratuta ez badago, ikus hurrengo atala (3. atala).



Identifikatu ondoren, zure eremu pertsonala ikusiko duzu:




**Garbiketaren eta sukaldaritzaren birmaremazio-prozesura** sartu ahal izateko, **Izapideak langileen sailarekin** aukeratu behar da.

**Izapideak langileen sailarekin** aukeratu ondoren, aukeratu beharko da **Birmaremazioa. Garbiketa eta sukaldaritza.**



# 3. ERREGISTRATU GABEKO ERABILTZAILEAK

## Heziguneara sarbidea

Sarbide esteka: https://hezigunea.euskadi.eus/eu/

## Erregistroa




Erabiltzaileak hurrengo estekatik sartu behar dute “**Izen-ematea**”.

Atal honetan identifikazio-datuak eskatzen dira, nortasuna egiaztatzeko.




Eskura izan behar dute NAN (edo AIZ), beharrezko datuak sartzeko eta datuak egiazkoak direla egiaztatzeko

"**Jarraitu**" sakatuta, pertsonaren datuak agertuko dira:




Helbide elektroniko bat eta mugikor telefono bat gehitu behar dituzu, eta bertan pasahitza eta gakoak dituen mezu bat jasoko duzu. "**Amaitu**" botoian klik egin behar duzu.



## Pasahitza aldatzea




Erabiltzaileak jasotako datuak sartu beharko ditu bere espazio pertsonalera sartzeko.

Sistemak emandako pasahitzarekin sartzen den lehen aldia denez, pasahitza aldatu beharko duzu. Pasahitz pertsonal batengatik ordeztu.



# 4. GARBIKETA ETA SUKALDARITZA BIRMAREMAZIOA 2023-2024

Garbiketa eta Sukaldaritza Birmaremazioan sartu ondoren, martxan dauden prozesuko urratsen eskema bat bistaratuko da.

**Ebazpena** atalean, pdf formatuan ikusi ahal izango da Hezkuntza Saileko garbiketa eta sukaldaritzako langileen zerrenda urtero birbarematzeko prozedura irekitzen duen ebazpena.

Bestalde, **Ebazpena** atalaren azpian, langile bakoitzak bere zerrendetako kolektiboaren edo kolektiboen fitxa ikusi ahal izango du. Fitxan, Lurralde bakoitzean emandako zerbitzuei buruzko informazioa bistaratuko da, eta, halaber, langilea zein Lurraldetan dagoen apuntatuta eta, hala izanez gero, lanaldi osoetarako eta/edo murriztuetarako dagoen, lanaldi osoetarako bakarrik dagoen edo lanaldi murriztuetarako bakarrik dagoen.

Azkenik, **Hautagaiaren fitxak** agertzen diren atalaren azpian **Aukerak aldatzea** atala agertuko da. Edozein aldaketa egiteko, atal honetara sartu beharko da.



## 1. Datu Pertsonalak.

**Aukerak aldatzeko** atalean sartu ondoren, lehen irtengune bat agertuko da Datu Pertsonalekin.

Datu pertsonalen atal hau **Administrazioak langilearen gaur egungo datuekin beteko da lehenetsita.** Hala ere, **daturen bat aldatu bada edo oker badago, langileak atal honetatik alda dezake.**

Jarraian adierazitako adibidean, datu pertsonalak bete gabe daude, adibide bat delako, baina, aipatu bezala, atal hau langilearen datuekin beteta agertuko da.




Aldaketaren bat egin nahi izanez gero, ezinbestekoa da Gorde botoian klik egitea, egindako aldaketak behar bezala gorde daitezen.

Lurraldeetan edo lanaldietan aldaketaren bat egiteko, aldaketa egin nahi den kategoriara sartu behar da. Langile bakoitzak dagokion kategoria izango du gaituta, edo, hala badagokio, biena.




## 2. Lanaldia aldatzea.

Izena emanda dagoen eremuen **lanaldia aldatzeko**, jardunaldian agertzen den goitibeherako menua ireki eta nahi den aukera hautatu beharko da.




**Garrantzitsua**: gogoan izan aldaketa behar bezala gordetzeko ezinbestekoa dela Gorde botoia sakatzea.

## 3. Lurralde batean baja ematea

Apuntatuta dagoen lurralde bat kentzeko, ezabatu nahi den lurraldea aukeratu eta **lurralde batean baja emateko** botoian klik egin beharko da.

Lurralde bat aukeratzen da urdinez itzaleztatuta agertzen denean. Azaldutako adibidean Araba/Álava lurraldea hautatuta dago.



Langileak zerbitzurik ez duen lurralde bat ezabatu nahi izanez gero, pantaila txiki bat agertuko da, eta, bertan, aukeratutako erregistroak ezabatu nahi diren galdetuko da, ezabatzeko edo ezeztatzeko aukerak emanez. Ezabatzen bada, lurralde horri baja emango zaio langile horrentzat. Ezeztatzea aukeratzen bada, ez da eremurik ezabatuko.



Azaldutako adibidean, eta urdinez itzaleztatutako zonaldea Araba/Alava denez, kendu nahi izanez gero, Gipuzkoa eta Bizkaia lurraldeak bakarrik agertuko dira, jarraian azaltzen den bezala.




**Garrantzitsua**: gogoan izan aldaketa behar bezala gordetzeko ezinbestekoa dela Gorde botoia sakatzea.

## 4. Lurralde berrietan izena ematea.




Lurralderen batean alta emateko, klik egin beharko da **Lurralde berrietan izena ematea** aukeran:

Ondoren, **Lurr<u>alde</u>** menu-zabalgarrian zein lurralde sartu nahi den aukeratu beharko da, eta **<u>Jaurdunaldi</u>** menu-zabalgarrian eskatzaileak eremu horretan zein jardunalditarako izena eman nahi duen.






Azkenik, **Gorde** botoian klik egin behar da, lurralde berri hori behar bezala jasota gera dadin. Adibide horretan, langileak alta eman du Araba/Alava lurraldean, eta gordetzeko botoiari eman ondoren, honako pantaila hau bistaratuko da:




Hainbat lurraldetan izena emateko, banan-banan joan behar da, langileak izena eman nahi duen lurralde berriak gordeta.

## 5. Frogagiria jasotzea

**Gorde** botoiari eman ondoren, eskatzaileak frogagiri bat sortu ahal izango du, egindako aldaketa guztiak jasotzen dituena.



Sortuko den frogagiriaren formatua honako hau izango da:



Data / Fecha: 19/05/2023 09:45

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

**Identifikazio-datuak** / Datos identificativos

| | | | |
|---|---|---|---|
| **NAN** / DNI: | 06957549A | **Izen-Deiturak** / Nombre y Apellidos: | NOM_06957549A APE1_06957549A APE2_06957549A |
| **Telefonoak** / Teléfonos: | 665745323 | **Sexua** / Sexo: | M |
| | | **Helbidea** / Dirección: | ARIZNABARRA Nº35 |
| **Email** / Email: | | **Udalerria** / Población: | Vitoria-Gasteiz |
| **L.H.** / T.H.: | Araba/Álava | **Posta-kodea** / C.P.: | 01007 |
| **Nazionalitatea** / Nacionalidad: | España | | |
| **Jaiotze-data** / Fecha Nacimiento: | 28/MAR/1956 | | |

**Garbiketa** / Limpieza

☐ **Uko** / Renuncia:

Lauki hau markatzen duena 2024/2025 ikasturtean egingo diren lan eskaintza eta deialdi guztietatik kanpo geratuko da / Quienes marquen esta casilla quedarán excluidos de todas las ofertas y llamamientos a lo largo de todo el curso 2024/2025

**Egoera** / Estado: BAJA/BAJA

**Eskaerak** / Solicitudes

| **Lurraldea** / Territorio: | **Zerbitzuak** / Servicios: | **Jardunaldia** / Jornada: |
|---|---|---|
| Araba/Álava | 0 | JARDUNALDI OSOA + JARDUNALDI MURRIZTUA/JORNADA COMPLETA + JORNADA REDUCIDA |
| Bizkaia | 0 | JARDUNALDI OSOA + JARDUNALDI MURRIZTUA/JORNADA COMPLETA + JORNADA REDUCIDA |
| Gipuzkoa | 0 | JARDUNALDI OSOA + JARDUNALDI MURRIZTUA/JORNADA COMPLETA + JORNADA REDUCIDA |

**<u>OHAR GARRANTZITSUA:</u>**

**Pertsona bat nahi adina aldiz sar daiteke aplikazioan kontsultatzera edo aldaketak egitera, birbarematzeko epea irekita dagoen bitartean. Gordetako azken aldaketek izango dituzte ondorioak. Horregatik, garrantzitsua da egindako aldaketak egiaztatzen dituen frogagiri bat sortzea.**